


|            |                         |          |         |
|------------|-------------------------|----------|---------|
| IKASTETXEA | Lekaroz BHI             |          |         |
| IZENBURUA  | Gure herriaren historia | MAILA    | 2. DBH  |
| IRAKASLEA  | Iñaki Arrese            | IKASGAIA | Gizarte |

DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.

## 1. ATAZA

### TESTUA





BAINA ORDURAKO UR ASKO ZEGOEN PASEA ZUBI AZPITATIK.

URA ETA ODOLA.



LEHENA, MUTARRIF BANU QUASIRENA, ENEKO GARTZIA KARLOMAGNOREN AURKA LOGUNDU ZIONARENA.

HARITZA IBILI DA HEMEN TARTEKO.

HARITZA



"HARITZA" DEITZEN DIO MORET JESUITAK ENEKO GARTZIARI. BENETAKO ENEKO HARITZA EZ DA ORDEA 70 URTE BARRU ARTE AZALDUKO, ETA ARAHUESTEN HALATATUA IZANGO DA.



BESTE BATZUK MITO BAT IZAN ZELA DIOTE.

ETA MITOAK ENBARAZOA EGITEN DIETEN EUSKALDUN MAIRUAK AKABATZEKO GAI DIRA ALA?



ENEKO HARITZA DA BAT? HORIXE KERTIA! EZ ALA EUSKAL ATSOITZA IZENA DUENAK DUELA?



ESATEN NIZUN BEZALA, ZU BEZALAKOIA NINTZEN NI: ADISKIDE JAKINTSU BAT, IZEBEA AZTI BAT ETA ARBASO PELMA BAT ZITUEN GABAI GAZTEA.

ASTURIARREK MEHATXU EGITEN DIGUTE SARTALDETIK, FRANKOEK SORTALDETIK, ETA MAIRUEK HEGOALDETIK...



NIRE USTEZ, ETEM, BADA BURUZAGI AUSART ETA ARGÍ BATEK AGINTE OSOA HARTZEKO GARATA.



GIZON SENDO, MALTZUR, ESTE TEGA ON ETA DIPLOMATIKAK TREBEA BEHAR DUGU.

NI NEU.



HORI DA.

DEMOKRATIKOKI HAUTA DEZAGUN ERREGEA.

GASP.



ENEKO HARITZA DUT IZENA. BIGORRAN JAIOA, ETA AKITANIAKO DUKEEN AHAIDEA.



FRANKOEN, ASTURIARREN, MATRUEJ ETA ZENBAIT EUSKALDUNEN ETSAIA NAIZ.



ERREGEGAIA NAIZ NI ERE.



IKUSTAGUN, ZEINTZU DIRA ZURE BOTERERAKO ASMOAK?

EIN?

GASP.

NI...

MATRUENGANDIK HASI BEHARRA DAGOELA USTE DUT, ASTURIARREKIN ALIATUZ.



ETA ZURE ASMOAK?

NI?

GLUBS.

NIÑE USTEZ ASTURIARREKIN ALIATU BEHARRA DAUKAGU MATRUEI KONTRA EGITEKO.



GAIZKI!

OSO GAIZKI! UNE HONETAN, 824. URTEAN, EBLO ETA AZNAR DUKEAK, FRANKOETI SALDUTAKO TRAI DOREAK ORREAGARA HURBILTZEN ARI DIRA.

ZUZENENA MUSKARIAKO BANU QUASITARREKIN BATZEA DA, FRANKOAK BERRIRO ERE GARAITZEKO.





| <b>JATORRIA</b>       |   |
|-----------------------|---|
| EGILEA                | R. Castellano (gidoia) eta Stesó (marrazkiak) |
| IZENBURUA             | Gure herriaren historia (Gabai komikia)       |
| ARGITALETXEA/Webgunea | LUR   |
| URTEA                 | 1988  |
| ORRIALDEA (K)         | 3tik 7ra                                      |
| ISBN                  | 84-7099-273-2                                 |
| <b>TESTU-MOTA</b>     |   |
| OINARRIA              | Inprimakia                                    |
| FORMATOA              | Mistoa  |
| MOTA                  | Narrazioa                                     |
| ERABILERA             | Pribatua, Hezkuntzakoa                        |

## **ESTRATEGIAK**

### **IRAKURRI BAINO LEHEN**

#### **1.-Irakurketaren helburua:**

Lehenik eta behin, adierazi behar dugu komikia landuz, bereziki ikasleek **informazio orokorra jasotzea** nahi dugula.

#### **2.- Komiki formatuaren inguruan aurretiko ezagutzak aktibatzea:**

Testua irakurri baino lehen, klasean komikiei buruz hausnarketa bat egingo dugu, denon artean, ea historia ezagutzeko balio duten, nolako informazioa eskaini dezaketen, ea beraiek komikiak irakurtzen dituzten eta zein motatakoak... aipatu daitezke beste komiki batzuk: “**Asterix**”...

#### **3.- Gaiaren inguruan aurretiko ezagutzak aktibatzea:**

- Une historikoak kokatuko ditugu: erromatarrak, barbaroak, musulmanak...
- Leku historikoak kokatuko ditugu: Penintsula, Nafarroa, Iruñea...
- Pertsonaia historikoren bat edo beste aterako dugu: Karlomagno...

Ezagutza hauek aktibatzeko, eskola-liburua (258. orr.) eta Nafarroari buruzko eranskina erabiliko dugu (mapa).

#### **4.- Irakurri behar dutenaz hipotesiak egitea:**

Komikia irakurri aitzinetik, ikasleei marrazkiak begiratzea (“irakurtzea”) eskatuko diegu eta imajinatu egin beharko dute zer den kontatzen zaiguna.

### **IRAKURRI BITARTEAN**

## **1.- Garrantzitsua izan daitekeen informazioa zehaztea:**

Pertsonaia historikoei (Gartzia Semeneitz, Eneko Haritza, Banu Qasi...), lekuei (Orreaga, Burunda, Akitania, Tuter...Leku hauek guztiak kokatu egin beharko dituzte) eta denborari (758, 824...) erreferentzia egiten dieten datuak azpimarratuz.

Ulertzen ez dituzten hitz gakoak azpimarratuz; adibidez: mito, ahaide, leinu...

Aipatzen diren “tribu” edo taldeak zehaztuz: mairuak, frankoak, asturiarrak, baskoiak, autrigoiak, zaraitzuarrak, erronkariarrak...

## **2.- Istorioa aurkeztu eta narratzeko modua identifikatzea (testu mota, berariazko testu-generoa eta berariazko egitura identifikatzeko estrategiak)**

Horretarako, irakurri ahala, elkarrizketaren bidez narratzailea nor den bilatuko dugu eta ikusiko dugu

pertsonaia den ala ez, bere ikuspuntua objektiboa ala subjektiboa den...

Bestalde, testua osorik ezagutzen ez dugunez, galdetuko diegu egitura osatzeko zein izango litzatekeen falta zaigun informazioa (bukaera edo jarraipena nolakoa izango den beraien ustez...)

## **IRAKURRI ONDOREN**

### **1.- Komikiaren berrirakurketa sakona**

### **2.- Informazio garrantzitsua markatzeko estrategia materialak.**

Irakurri bitartean informazio garrantzitsua izan zitekeena azpimarratzeko eskatuko diegu (pertsonaiak, lekuak, hitzak...).

### **3.- Inferentziak egitea**

Orain, irakaslearen laguntzaz, azpimarratu duten informazio horretatik zenbait ondorio ateratzen saiatuko dira. Hala nola, zein ziren garai hartan Nafarroan bizi ziren herriak, Iruñeko lehenengo erregea, nafarren etsaiak, erregeak aukeratzeko metodoa, Elizaren papera....

### **4.-Aurretik egindako hipotesiak baieztatzea**

Noraino hasieran egindako aurreikuspenak bete diren